

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

5749

IRAGARKIA, 2024ko azaroaren 29koa, Industria Administrazioako Arabako lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez jendurrean jartzen baitira Oyón-Oion udalerrian «Val» (1 MW) eta «Muga» (1 MW) eguzki-planta fotovoltaikoak eta horiei lotutako azpiegiturak eraikitzeko aurretiazko administrazio-baimenaren eta administrazio-baimenaren eskaerak.

48/2020 Dekretuaren 10. artikuluan (48/2020 Dekretua, martxoaren 31koa, zeinaren bidez arautzen baitira energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak) eta 24/2013 Legearen 53.1 artikuluan (24/2013 Legea, abenduaren 26koa, Sektore Elektrikoari buruzkoa) ezarritako ondorioetarako, jendurrean jartzen dira «Val» (1 MW) eta «Muga» (1 MW) instalazio fotovoltaikoen eta horiei lotutako azpiegituren proiektuak.

– Eskatzailea: Bailén Energía, SL.

– Xedea: energia elektrikoa sortzea.

– Eskaeraren helburua: aurretiazko administrazio-baimena eta eraikitzeko aurretiazko administrazio-baimena.

– Tartean dagoen udal-mugartea: Oyón-Oion.

Espedientea: 01-GE-Y-2024-00009.

– «Val» proiektua:

a) «Val» eguzki-instalazio fotovoltaikoa. Eguzki-instalazioak 700 Wp-eko 1.680 modulu eta 250 kW-ko 4 inbertsore fotovoltaiko ditu. Guztira 1 Mwn-ko potentzia du.

b) 1.000 kVA-ko transformadorea duen transformazio-zentroa.

c) Transformazio-zentrotik sekzionamendu-zentroaren sarrerarainoko lurpeko ebakuazio-linea. 1.828,7 metroko luzera duena.

– Husteko puntua: sortutako energia husteko puntua 1. linea – Oyon-Casablanca da, 13,2 kV-ekoa eta Oyon TEAkoa (13,2 kV), 10. euskarritik gertu (3283911), eta, orduan, sekzionamendu-zentro bat instalatu behar da (proiektu honen parte ez dena).

– Eguzki-instalazioak hartzen duen azalera: 3,14 ha (bi hauentzat: Val eta Muga)

– Aurrekontua (BEZik gabe): 616.039,71 euro.

Espedientea: 01-GE-Y-2024-00052.

– «Muga» proiektua:

a) «Muga» eguzki-instalazio fotovoltaikoa. Eguzki-instalazioak 700 Wp-eko 1.680 modulu eta 250 kW-ko 4 inbertsore fotovoltaiko ditu. Guztira 1 Mwn-ko potentzia du.

b) 1.000 kVA-ko transformadorea duen transformazio-zentroa.

c) Transformazio-zentrotik sekzionamendu-zentroaren sarrerarainoko aireko-lurpeko eba-kuazio-linea. 432,61 m-ko luzera du lurpeko tartea, eta 255,70 m-koa airekoa. Euskarri berri bi ere egin beharko dira.

– Husteko puntua: sortutako energia husteko puntua 19. linea – Norias-Margen izquierda da, 13,2 kV-ekoa eta Las Norias TEAkoa (13,2 kV), 231. euskarritik gertu (3278852), eta, orduan, sekzionamendu-zentro bat instalatu behar da (proiektu honen parte ez dena).

– Eguzki-instalazioak hartzen duen azalera: 3,14 ha (bi hauentzat: Val eta Muga).

– Aurrekontua (BEZik gabe): 506.664,66 euro.

Industria Administrazioiko Arabako Lurralde Ordezkaritzak eman behar dizkie proiektu hauei aldeaz aurreko eta eraikitzekeko administrazio-baimenak, eta gero jendaurrean jarri behar dira.

Hori guztia argitaratzen da, interesdunek eta, oro har, herritarrek bi proiektuaren gaineko dokumentazioa azter dezaten 20 egun balioduneko epean, iragarki hau argitaratzen den egunetik aurrera, Industria Administrazioiko Arabako Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego kalea 2, Vitoria-Gasteiz) eta Interneteko www.euskadi.eus webgunean (Energia eta meategiak/Energia ataleko proiektuaren jendaurreko informazioan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/energia-meategiak/hasiera/>), eta egokitzen jotzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 29a.

Industria Administrazioiko Arabako lurralde-ordezkarria,
JOSE MIGUEL MUÑOZ SAN MARTÍN.